

Nazioarteko ikertzaileak HUHEZIKo indagazio mintegian, irakasleen prestakuntzaz hitz egiten

2007/03/28

Martxoaren 26an eta 27an **HEZI Institutuak** Indagazio mintegi bat egin du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean --horrela deitzen da irakasleen prestakuntzan transmisio hutsa baino indagazioa lantzen duelako--. Batetik, irakasleen formazioan aditua den Lise Kofoed --ek (Aalborgeko Unibertsitatea, Danimarka); eta, bestetik, Olga Esteve irakasleak (Pompeu Fabra Unibertsitatea), Kataluniako Hezkuntza Sailean irakasleen prestakuntzan aditua denak.

Erakunde horiek --Mondragon, Aalborg eta Pompeu Fabra unibertsitateak-- sare bateko kide dira; sarea HEZI Institutuak koordinatzeaz gain, Eusko Jurlaritzak babesten du, eta sare horretan jorratzen dira **irakasleen prestakuntzarekin lotutako** zenbait gai.

